



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO OSOKO BILKUREAK ERREPIDEEN ETA PEDANIAKO ALKATETZAK HAUTATZEAREN GANEKO FORU-ARAUAK ONARTU DITU

- **Bizkaiko Batzar Nagusiek, argindarraren fakturretan BEZa jaisteari eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko Estaduko legediaren transposizioa egin dabe, eta, erdibideko zuzenketa-eske baten bidez, Bilbo-Santander trenbide linea hobetzeko eta FEVEren Bizkaiko tartea Eusko Jaurlaritzari azkarrago transferitzeko eskatu dabe.**
- **Aldundiak azken urte bietan Bizkaiko Batzar Nagusiek emondako 26 aginduak bete ditu edo beteko ditu, arauz besteko proposamenak eta mozinoak betetearen ganeko azkenengo txostenak erakusten dauenez.**

(Gernikan, 2021eko urriaren 20an). Gernikan gaur egin dan ikasturte politiko barriko Bizkaiko Batzar Nagusien lehenengo ohiko osoko bilkurak, errepideeen ganeko foru araua eta lurraldean, Urduñan, hain zuzen be, dagozan lau pedanietako alkateak aukeratzeko foru-araua onartu ditu. Modu berean, Batzar Nagusiek, argindarraren fakturen BEZaren eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko Errege Lege Dekretu baten transposizioa berretsi dabe.

Errepideen inguruko Foru Arauari jagokonez, Batzar Nagusiek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek osatzen daben gehiengoari esker, oneritxia emon deutseez Aldundiak aurkeztutako testuko 67 artikuluei. Testu horrek ordeztu egingo dau Bizkaiko errepideak orain dala hamarkada batetik arautzen ebazan oinarritzko araua. Gaur, Foru Gobernu eusten daben taldeek atzera bota ditue, barriro be, Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak aurkeztutako zuzenketa-eske guztiak. Alderdi hori izan da errepideen plangintzagaz eta ustiapenagaz zerikusia daukien alderdien ganeko arauzko dokumentuaren aurrean zuzenketa-az etorri dan bakarra.

Bizkaiko errepide-sarearen plangintzari jagokonez, testuak errepideen hierarkiazino barria emoten dau, eta daborduko jasota dagozan finantziiazino-alderdiak sartzen ditu, bai aurrekontuen, bai erabiltzaileen (bidesariak) bidez. Modu berean, Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantza diputatuak azaldu dauenez, araua bat dator Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko Batzordeak 2019ko urtarrilaren 11n onartutako Bizkaiko Errepideen LPSa egiteko jarraibide eta erespide orokorrakaz. Eta, azkenik, arau-proiektuak honeek be hartzen ditu barruan: azkenengo urteetan gauzatutako obra-mota barriak, errepide-mota barriak, etorkizunean gauzatu daitekezan teknologia barriak eta ingurumen- eta gizarte-arloko sensibilitate barriak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ustiapenari jagokonez, arau barria “oso teknikoa eta konplexua” da, Gobernuaren eusten daben taldeek adierazo dabenez, eta mugakaz, baimenakaz, uri-tarteakaz eta zeharbideakaz, udalerrien titulartasunaren transferentziakaz eta errepideen kalteen eta zerbitzuaren eraginaren ondoriozko erantzukizunagaz lotutako alderdiak eguneratzen ditu. Atal horrek lotura dauka irisgarritasun “jasangarria” ahalbidetzeko zerbitzua emoteagaz.

Kontrako botoa emon dauen talde bakarra izan dan Talde Berezia-PP Bizkaia taldearentzat, arauaren barritasun “bakarra” 26. artikuluan bidesariak ezartea da, errepideen eraikuntza finantzatzeko modua izan daiten. “Garraiolarietatik hasiko dira, eta gero ganerako gidari guztiak etorriko dira”, ohartarazo dau Eduardo Andrade popularrak. Batzar Nagusietako ganerako taldeek ez dabe baztertu bidesariak ezartea, baina EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaia –testuaren bozketan abstenitu egin dira– eztabaida “sakonagoa” eskatu dabe, inplikautako eragile “guztien” parte-hartzeagaz.

Arauk ez dau herritarren alegazinarik jaso, ezta oposizino taldeen zuzenketa-eskerik be, Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak erregistrau ebazan 49 zuzenketa-eskeak izan ezik, bat osokoa. Talde horrek kritikau egin dau bagilaren 24an Batzar Nagusietan erregistrau eben arauak “abuztuaren eragina” jasan izana, baina Irene Edesa jeltzaleak martira atzeratu dau prozeduraren hasieraa.

Modu berean, osoko bilkurak aho batez onartu dau Bizkaiko Lurralde Historikoan udalerrria baino lurralde-eremu txikiagokoak diran pedanietako, guztiak Urduñako Urian, Alkateak hautatzeko Foru Araua. Arauk Belandiako, Lendoñogoitiko, Lendoñobeitiko, Lendoñobeitiko eta Mendeikako errejidorea aukeratzeko moduari eragingo deuto. Kasu gehienetan 50 bizilagun baino gitxiagoko herriguneak dira. Besteak beste, lurraldeko lau enklabe txiki horreen ordezkaria aukeratzeko modua ezarri da. Bozketa sekretua egingo litzateke foru eta udal hauteskundeakaz batera, baina beste hautestontzi batzuetan.

Beste alde batetik, Batzar Nagusiek bagilaren 24ko 12/2021 Errege Lege Dekretuan jasotako zerga-murrizketea foru-araudira ekarri da. Errege Lege Dekretu horretan ezarten zan, salbuespenez eta aldi baterako, 2021eko abenduaren 31ra arte, 10 kW-tik gorako potentzia-termino finkoa ez daukien energia elektrikoko kontratuetarako, handizkako merkaduaren hileko batez besteko prezioa 45 €/MWh-tik gorakoa danean, BEZa % 21etik % 10era jaistea. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Elkarrekin Bizkaia onartu daben eta EH Bildu eta Talde Berezia-PP taldeen abstentzinoa jaso daben foru dekretu arauemoileak, 2021eko hirugarren hiruhilekoan elektrizidadea ekoizten daben eta sistema elektrikoan txertatzen daben instalazioei energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko zergea kentzea aurreikusten dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BATZAR NAGUSIEN AGINDUEN BETETEA

Bileran, Batzar Nagusiek onartutako arauz besteko proposamenen eta mozinoen betete-mailaren balantzea egin dau Aldundiak. Elixabete Etxanobe Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako diputatuak aurkeztu dauen eta 2019ko irailaren 1etik 2021eko irailaren 1era arteko epeari jagokon txostenean, Foru Gobernuak Batzar Nagusien 26 agindu jaso dituala egiaztatu dau (arauz besteko 19 proposamen eta 7 mozino). Horreetatik bederatzia (% 34,6) arrakastaz bete ditu daborduko, eta ganerakoak egikaritze-aldi “aurreratuan” dagoz. Azken urte biotan, beste erakunde batzuei eragiten deuten beste bost ekimen onartu ditu Bizkaiko Parlamentuak.

Batzar Nagusietako eta gobernuko jarduera horrek, beraz, taldeek Batzar Nagusietan aurkeztutako ekimenekaz eta ekimen horreek beteteko erritmoagaz dauko zerikusia, eta horreek pandemiak “baldintzauta” egon dira. Aldundiari zuzendutako proposamenen erdia baino gehiago –“% 54”– Gizarte Ekintza, Enpleo, Gizarteratze eta Berdintasun sailentarako ziran.

Oposizinoaren eretziz, azken ikasturte politiko bi honeetan, Foru Gobernua eusten daben talde biek, Batzar Nagusietan eztabaidutako proposamenen “% 19,01” baino ez dabe onartu, Amaya Fernandez PPko bozeroalearen kalkuluen arabera. Bea Ilardia EH bilduko bozeroalearen berbetan, adostasun mailak “behera” egin dau legegintzaldi honetan, eta horrek “balio politiko eskasa” erakusten dau.

SANTANDER-BILBO TRENBIDEAREN DEFENTSEA

Batzar Nagusien interesa biztu dauen beste gaietako bat FEVEren Santander-Bilbo trenbidea izan da. Eztabaidea, azpiegitura hori defendidutako moduaren ganeko arauz besteko proposamen bi eztabaidatzeko sortu da, bata EH Bildurena eta Elkarrekin Bizkaiaarena, eta bestea Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak alkarregaz aurkeztutakoa. Azkenik, lau taldeak akordio batera iritsi dira erdibideko zuzenketa bat onartzeko, eta, bertan, azpiegitura horren eskumena daukien administrazio guztiei zerbitzua “ahalik eta lasterren” hobetzeko eskatzen jake, eta baita trenbide arloko eskumenak transferitzeko administrazioek akordio bat lortu daiela be.

Talde Berezia-PP taldearen abstentzinoagaz onartutako ekimenak Ministerioari, ADIFI eta RENFERi be azpiegituran eta zerbitzuan neurriak hartzeko eskatu deutse, zehatzago esanda, “maiztasunak hobetzeari, erabiltzaileei emondako informazioa hobetzeari eta trenbide tarteak elektrifiketeari” jagokenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Osoko bilkurak Bizkaiko ondare industrialaren inguruko arauz besteko proposamen bat eztabaidatu dau, Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaia taldeak aurkeztutakoa. Proposamen horretan, Euskal Erroten eraikinaren esku-hartze integralari ekitea, Ekintzailtza Zentroa eraikin horretara erroteko aukera aztertzea eta Teknikaren Museoa Lutxana-Barakaldoko Orconerako tailerretan gauzatzen laguntzea eskatzen jakon Aldundiari. Kasu horretan, ekimena osorik bota dabe atzera Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, eta modu partzialean (2. eta 3. puntuak) EH Bilduk.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBA LAS NORMAS FORALES DE CARRETERAS Y DE ELECCIÓN DE ALCALDÍAS PEDÁNEAS

- **El Parlamento de Bizkaia transpone legislación estatal sobre la rebaja del IVA en las facturas de la luz y sobre el valor de la producción de energía eléctrica, y pide, a través de una enmienda transaccional, mejoras en la línea de tren Bilbao-Santander y acelerar la transferencia del tramo vizcaíno de FEVE al Gobierno vasco.**
- **La Diputación ha cumplido o cumplirá los 26 mandatos emitidos por las Juntas Generales de Bizkaia en los dos últimos años, según el último informe foral que refleja el grado de ejecución de las proposiciones no de norma y mociones aprobadas.**

(Gernika, a 20 de octubre de 2021). El primer pleno ordinario de las Juntas Generales de Bizkaia del nuevo curso político, celebrado hoy en Gernika, ha aprobado la Norma Foral de Carreteras y la Norma Foral que regirá la elección del alcalde o alcaldesa de las cuatro pedanías existentes en el territorio, ubicadas en Orduña. Asimismo, la cámara vizcaína ha ratificado la transposición de un Real Decreto de Ley en relación al IVA de las facturas de la luz y al valor de la producción de la energía eléctrica.

En cuanto a la Norma Foral de Carreteras, la Cámara vizcaína, gracias a la mayoría que suman los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas vascos, ha dado el visto bueno a los 67 artículos del texto presentado por la Diputación, que viene a sustituir a la norma básica que regulaba hasta ahora las carreteras de Bizkaia desde hace una década. Hoy los grupos que sustentan al Gobierno foral han vuelto a rechazar todas las enmiendas presentadas por el grupo Mixto-PP Bizkaia, única formación que ha acudido con correcciones al documento normativo que aborda fundamentalmente aspectos relacionados con la planificación y la explotación de las carreteras.

Por lo que respecta a la planificación de la red viaria vizcaína, el texto ofrece una nueva jerarquización de las carreteras e introduce aspectos de financiación de las mismas que ya están incorporados, ya sea vía presupuestos o vía usuarios (peajes). Asimismo, la norma se adapta, según ha explicado el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, a las directrices y criterios generales para la elaboración del PTS de Carreteras de Bizkaia aprobado por una Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales, del 11 de enero de 2019. Y, por último, el proyecto



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

normativo incorpora también los nuevos tipos de obras ejecutados en los últimos años, los nuevos tipos de carretera, las nuevas tecnologías de previsible desarrollo futuro y las nuevas sensibilidades de carácter medioambiental y social.

En cuanto a la explotación, la nueva norma, “muy técnica y compleja” según los grupos que sustentan al Gobierno, actualiza los aspectos relacionados con las limitaciones, autorizaciones, tramos urbanos y travesías, transferencias de titularidad a los municipios y responsabilidad derivada de daños a la carretera y afección al servicio. Este apartado está relacionado con la prestación de un servicio al público para favorecer una accesibilidad “sostenible”.

Para el grupo Mixto-PP Bizkaia, que ha sido el único grupo en votar en contra, la “única” novedad de la norma es la introducción en el artículo 26 del establecimiento de peajes como modo de financiación de la construcción de carreteras. “Comenzarán por los transportistas y luego le seguirán todos los demás conductores”, ha advertido el popular Eduardo Andrade. El resto de grupos junteros no ha descartado la implantación de peajes, aunque EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia –que se han abstenido en la votación del texto- han pedido un debate “más profundo” con la participación de “todos” los agentes implicados, especialmente el sector del transporte.

La norma no ha recibido alegaciones ciudadanas ni enmiendas de los grupos de la oposición, excepto las 49 enmiendas que registró el grupo Mixto-PP Bizkaia, una a la totalidad. Este grupo ha criticado la “agosticidad” de la norma, que fue registrada en la Cámara el 24 de junio, si bien la jeltzale Irene Edesa ha retrasado el inicio del procedimiento al mes de marzo.

Asimismo, el pleno ha dado luz verde por unanimidad a la Norma Foral de elección de Alcaldes y Alcaldesas pedáneas de las entidades locales menores del Territorio Histórico de Bizkaia, que se ubican todas ellas en la Ciudad de Orduña. La norma afectará a la manera de elegir al regidor de Belandia, Lendoñogoiti/ Lendoño de Arriba, Lendoñobeiti/ Lendoño de Abajo y Mendeika, núcleos de población que en el mayor de los casos cuenta con medio centenar de vecinos y vecinas. Se establece, entre otras cosas, la forma de elegir al representante de estos cuatro pequeños enclaves del territorio que se realizaría en votación secreta coincidiendo con las elecciones forales y municipales, pero en urnas distintas.

Por otro lado, la Cámara vizcaína ha transpuesto a la normativa foral la reducción de impuestos incluidos en el Real Decreto-ley 12/2021, de 24 de junio, en la que se establecía de forma excepcional y transitoria, hasta el 31 de diciembre de 2021, para los contratos de energía eléctrica cuyo término fijo de potencia no supere los 10 kW, una rebaja del IVA, desde el 21 al 10 por ciento, cuando el precio medio mensual del mercado mayorista supere los 45 €/MWh. El decreto foral normativo aprobado por



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Elkarrekin Bizkaia, que ha contado con la abstención de EH Bildu y grupo Mixto-PP, contempla durante el tercer trimestre de 2021, una exoneración del impuesto sobre el valor de la producción de la energía eléctrica a las instalaciones que producen electricidad y la incorporan al sistema eléctrico.

CUMPLIMIENTO DE LOS MANDATOS DE JUNTAS

En la sesión, la Diputación ha hecho balance de los cumplimientos de las proposiciones no de norma y mociones aprobadas por la Cámara vizcaína. En el informe presentado por la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe, correspondiente al periodo entre el 1 de septiembre de 2019 y el 1 de septiembre de 2021, el Gobierno foral ha constatado que ha recibido 26 mandatos de la Cámara vizcaína (19 proposiciones no de norma y 7 mociones). Ha cumplido ya con éxito nueve de ellas, el 34,6%, y el resto se encuentra en periodo de ejecución “avanzado”. En estos dos últimos años, el Parlamento de Bizkaia ha aprobado otras cinco iniciativas que afectan a otras instituciones.

Esta actividad parlamentaria y gubernamental, por lo que tiene que ver con las iniciativas presentadas por los grupos en la Cámara vizcaína y el ritmo de cumplimiento de las mismas, ha estado “condicionado” por la pandemia. Más de la mitad de las propuestas dirigidas a la Diputación -“el 54%”- tenían como destino a los departamentos de Acción Social, y de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

La oposición ha apostillado que, en estos dos últimos cursos políticos, los dos grupos que apoyan al Gobierno foral “solo” han permitido aprobar el “19,01%” de las propuestas debatidas en la Cámara foral, según cálculos de la portavoz del grupo Mixto-PP, Amaya Fernández. Los niveles de consenso, a juicio de la portavoz de EH Bildu, Bea Ilardia, han “ido a menos” en esta legislatura, lo que da cuenta de un “escaso valor político”.

DEFENSA DE LA LÍNEA DE TREN SANTANDER-BILBAO

Otro de los asuntos que ha concitado el interés de la Cámara ha sido la línea de tren de FEVE Santander-Bilbao. Se había ordenado el debate para debatir dos proposiciones no de norma sobre el modo de defender esta infraestructura, una de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, y otra conjunta de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. Finalmente, los cuatro grupos han llegado a un acuerdo para aprobar una enmienda transaccional en la que se insta al conjunto de administraciones competentes de esta infraestructura a mejorar el servicio “a la mayor brevedad



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

posible”, así como a que las administraciones competentes alcancen un acuerdo en la transferencia del tramo ferroviario vizcaíno.

La iniciativa aprobada con la abstención del grupo Mixto-PP, pide también al Ministerio, ADIF y RENFE, a adoptar medidas, tanto en la infraestructura como en el servicio, concretamente, en lo que se refiere a la “mejora de frecuencias, la mejora en la información a personas usuarias y la electrificación de tramos”.

El pleno ha debatido también una proposición no de norma sobre el patrimonio industrial de Bizkaia presentada por el grupo juntero Elkarrekin Bizkaia que pedía a la Diputación iniciar una intervención integral del edificio de Molinos Vascos, estudiar la posibilidad de trasladar a este edificio el Centro de Emprendimiento, y a favorecer el desarrollo del Museo de la Técnica en los antiguos talleres de Orconera, en Lutxana-Barakaldo. La iniciativa ha sido en este caso desestimada en su conjunto por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y de forma parcial (puntos 2 y 3) por EH Bildu.